

# ¡EZTA ILGO?<sup>(1)</sup>

Apala dana iasoa izango da, iagia dana eratzia. Zorionekoak baketsuak.

Ekach gogorrek iaurti ebazan  
Lurrera zugatz tantaiaak,  
Zutunik baiña gera zirean  
Bedar chikichu me meiak.

Beren trokatik urten eziñik  
Bildurrez gora beraka,  
Ichaso zabal zakona ebillen  
Bitsez bete t'orroaka.

Baiña igaro zan aize gogorra  
Errekachoen artetik,  
Chimur ederrez ziamartuaz  
Leiardun urak ganetik.

Oñeztu bizkor ondatzailleak  
Io dabez mendi gangarrak;  
Euren argiaz alaitu dira  
Beian dagozan ibarrak.

Amildu dira goitik ebilzan  
Ur arroki ta astinduak,  
Iausi ta gero, or doaz beruntz  
Billatzen troka itzaltsuak.

Aonetan otzan dagozanean  
Zeruragiño badoaz  
Lurrun egiñik, eguzki ederrak  
Bialtzen daben beroaz.

Ur ta chimista, aize ta eguzki,  
Guztiak langin azkarrak  
Zati egin da beera ekarteko  
Gaillurretako labarrak.

Onen ondakin apur austuai  
Trokan emonaz obia,  
Bete, gizendu, goratuteko  
Ibai ondoko zelaia.

Ezetaldian gizon iagiak  
Berantza ioaten dira,  
Sarri sekulan ichiko eztaben  
Izugarrizko tokira.

Ezetzak barriz ondatzen eztau  
Apal, gaiso ta chikirik,  
Zerura bide goruntz daroaz  
Beren sorbaldan iarririk.

(1) Esta poesía obtuvo mención honorífica en concurso celebrado en Bilbao.

Illuntzan dabil Cherren gaiztoa  
Iaso ebalako burua;  
Iaunan aurrean makurtu zan da  
Zeruan dago aingerua.

Euren almena nun zabalduko  
Artega ebilzan erriak  
¿Nun dira baiña? ¿Zer egin iake?  
¡Austuta dagoz guztiak!

Eunkidetako aize sendoak  
Ezereztu dauz Persia,  
Kartago, Erroma, Sidon ta Tiro,  
Godoak eta Grezia.

Iñor mendetu nai izan eztaben  
Gure Euskalerrri maitea,  
Kondaira aurretik etorten dakust  
Itzali baga izatea.

Etorkizunak beren altsoan  
Dakazan ekach garratzak  
Ichiko deutse, triminduteko  
Dierrri lapur zikotzak.

¡Neure sorterri bakezalea  
Goruntza iaso biotza,  
Lenago ilgo da zu ostikopean  
Gaur zarabilzan arrotza!

¡Gorde eizuz, Ama, ekandu onak  
Jarraitutzeko Jaunari!  
¡Gorde eizu, Ama, izkuntza zarra  
Zor deutasuna Berari!

¡Eskatu, Ama, Jaungoikoari  
Lokabe zarra zeurea!  
¡Eskatuiozu onez ganera  
Beti betiko bakea!

Orretara, Ama, iraungo dozu  
Oñarte legez aurrera,  
Ta zure etsaiak, bigundu ezik  
Joango dira lurrera.

Alan izan dain eskatu daigun  
Biotzak gora jasorik;  
Batera, geldi eztaizela egon  
Euskalerrrian besorik.

EVARISTO BUSTINZA ETA LASUEN.

## LISTA DE LAS VOCES POCO USADAS

*Apala*, humilde.  
*Jagia*, altivo, soberbio.  
*Ziamurtu*, dibujar.  
*Leiardun*, cristalino.  
*Gangarra*, cresta.  
*Alaitu*, alegrar.  
*Amildu*, precipitar.  
*Arroki*, esponjoso.  
*Astindua*, fofo, hinchado.  
*Otzan*, manso.  
*Ezetaldia*, época de adversidad.

*Obia*, sepultura.  
*Izugarri*, espantoso.  
*Ezetza*, adversidad  
*Cherren*, el diablo.  
*Almena*, poderío.  
*Artega*, inquieto.  
*Eunkida*, siglo  
*Ezereztu*, anodadar, destruir.  
*Dierrri*, nación, pueblo.  
*Sorterri*, patria.  
*Lokabea*, la libertad.

